

# Euskal gizarte zibilaren ahotsa eta egungo ezaugarriak

(The voice of the Basque civil society and its current characteristics)

Zubiaga, Mario  
Joxemi Zumalabe Fundazioa  
Ametzagaña, 19 behea  
20012 Donostia

---

*Euskal gizarte zibila oso aberatsa eta indartsua da. Urtetan ze har diktadura frankistaren kontrako borrokaren kutsu aurrerakoa eta nortasun nazionalaren etengabeko defentsa izan ditu elikagai nagusiak. Gaur egun eduki ideologikoa ahuldu egin da agian, eta aniztasun organizatiboa areagotu baina betiko aldarrikapenak bizirik diraute: Euskal nortasunaren garapen anitza gizakide zein beste herriekiko elkartasuna eta ingurunearekiko begirunea. Eta batez ere edozein ibilbide sozial edota politikoan gizarteak izan behar duen protagonismoaren defentsa dira gure gizarte mugimenduen eskaera nagusiak. Horretarako taldeen arteko elkar ezagutza eta elkar lana ezinbestekoak dira.*

*Giltza-Hitzak: Euskal gizarte zibila. Diagnostika. Herri edo gizarte mugimenduak. Aniztasuna. Indarra. Nortasunaren garapena. Gizartearen hitza eta parte hartzea. Elkar lana.*

*La sociedad civil vasca es muy rica y fuerte. Durante años se ha alimentado principalmente del carácter progresista de la larga lucha contra la dictadura franquista y de la constante defensa de la identidad nacional. Hoy en día quizás se haya debilitado su contenido ideológico y sea mayor su pluralidad organizativa pero permanecen vivas las reivindicaciones de siempre: desarrollo plural de la identidad vasca, solidaridad con los semejantes, seres humanos y pueblos, y respeto hacia el medio ambiente. Y ante todo defensa del protagonismo que ha de tener la sociedad en cualquier proyecto social y político, éstas son las principales reivindicaciones de los movimientos sociales. Para ello el conocimiento mutuo entre los grupos y el trabajo conjunto resultan imprescindibles.*

*Palabras Clave: Sociedad civil vasca. Diagnóstico. Movimientos populares o sociales. Pluralidad. Fuerza. Desarrollo de la identidad. Palabra y participación de la sociedad. Trabajo conjunto.*

*La société civile basque est très riche et forte. Durant des années elle s'est alimentée principalement du caractère progressiste de la longue lutte contre la dictature franquiste et de la constante défense de l'identité nationale. Il se peut qu'aujourd'hui son contenu idéologique se soit affaibli, ou que sa pluralité organisationnelle soit plus grande, mais les revendications de toujours restent vivantes: développement pluriel de l'identité basque, solidarité avec les semblables, êtres humains et peuples, et respect pour l'environnement. Et, avant tout, défense du rôle principal que doit tenir la société dans tout projet social et politique; ce sont là les principales revendications des mouvements sociaux. Pour cela la connaissance mutuelle entre les groupes et le travail conjoint est indispensable.*

*Mots Clés: Société civile basque. Diagnostic. Mouvements populaires ou sociaux. Pluralité. Force. Développement de l'identité. Parole et participation de la société. Travail conjoint.*

SARRERA: BOST EZTABAIDA TALDE: BIZKAIA, GIPIZKOA, ARABA, NAFARROA ETA IPARRALDEA

Euskal gizarte zibilaren hainbat ahots jaso ditu txosten honek. Euskal herrialdeetan bildutako bost eztabaida guneetan lorturiko emaitzak oinarri harturik, koordinatzaile talde batek egindako lanaren laburpena duzu hau. Ardura horretan aritutakoak, Alberto Frías (Araba), Cesar Martínez (Bizkaia), Patxi Larrion (Nafarroa), Eguzki Urteaga (Iparraldea) eta Joxemi Zumalabe Fundazioko kide zenbait (Gipuzkoa) izan dira.

Koordinatzaile talde honen ardurapean elkar-tu direnak, berriz, ahots gehiago izan dira, ahots aktiboak, eskarmentuko ahotsak, gure gizarte zibilean aurki daitezkeen sektore eta sentiberatasun gehienen ordezkari diren ahotsak. Dokumentuaren amaieran azaltzen diren lanaren egiazko egile horiek, batez beste, bizpahiru eztabaida ekitalditan bildu dira galdetegi komun baten inguruan, eta adiskidetasunez mintzatu dira Euskal Herrian gizarte zibila zer izan den eta zer izan daitekeenari buruz.

Egiazki, gure asmoa ez da ezer diagnostikatzea izan, ez eta eztabaida ixtea ere, inondik ere ez. Are gehiago, dokumentuaren helburua, eta koordinatzaile guztiena, komunikazio aberatsagoa eta emankorragoa bideratuko duen abiapuntuko materiala lortzea besterik ez da izan. Zenbait proposamen zehatz definitzea, baina era berean ikusmolde desberdinen arteko eztabaida irekia ahalbidetuko duena: Gizarte taldeek elkarri egiten dizkioten proposamenak, eta euskal gizarte osora zabaldu nahi lituzketenak. Lan honek abiaburu gisa balioko duela espero dugu.

Hurrengo pertsonak parte hartu dute herrialde-etako eztabaida taldeetan:

ARABA: Alberto Frías (Koordinatzailea), Fernando Sopelana (Euskalgintza), Alvaro Anta (Etxebizitza), Jabi Agillo (ONGD), Susana Domínguez (Gazteria), Juan Ibarrondo (Radios libres) eta Antonio Escalante (Antimilitarista).

NAFARROA: Patxi Larrion (Koordinatzailea), Joxemari Arakama (Euskalgintza), Silvia Fernández (IPES), Patxi Iribarren (Eguzki Irratia), Blanca Burusko (ELKARRI), Mikel Bezunartea (Kontsumitzaileen elkarte) eta Koldo Resano (Antimilitarismoa).

BIZKAIA: Cesar Martínez (Koordinatzailea), Carlos Askunce (ITAKA Kristau komunitateak), Txus Elorza (Okupazioa eta inmigrazioa), Itziar Aspuru (Gesto por la Paz), Tere Maldonado (Emakumeen asanblada), Pedro Macho (EHGAM) eta Arturo Izarzelai (San Frantziskoko Auzo elkarte).

GIPIZKOA: Olatz Altuna (Koordinatzailea), Susana Martínez eta Amaia Artola (Koordinatzaileak), Joxemi Zumalabe Fundazioa, Iñaki Otamendi (KAKITZAI), Amaia Mugika (Zai-zoi auzoko gazte elkarte), Idoia Iturriotz (Plazandreok), Tomas Karrera (Senideak), Karlos Garrido (Eguzki), Jagoba Zulueta

(EHE), Izaskun Sasieta (Hezkide) eta Arantxa Ortega (Oreretako emakumeak).

IPARRALDEA: Eguzki Urteaga (Koordinatzailea), Boone Chaurd (AITAC Pop Basque), Maisonnave Jean (Aci Gasconha), Bernardet Michel (Aci Pays Basque), Mixel Estebam (Ikas-Bi) eta Amaia Beyrie (EHE).

LEHEN ATALA: EUSKAL GIZARTE ZIBILAREN AUTODEFINIZIOA – ZERTAZ ARI GARA? NOLA DEFINITZEN DUGU GURE BURUA?

Euskal eragile sozial gehienek ez dute beren burua “gizarte zibil” kontzeptuaren barnean ikusten. Gizarte zibil kontzeptuak zabalegia eta desegokia dela ematen du, eta ezin daiteke bestela izan haren barnean Euskal Herriko gizarte guztia hartu nahi izanez gero. Gizartearen heterogeneotasunak kontzeptu eragileago bat eskatzen du. Kontzeptu horiek hainbat talde eta elkartetan, gizarte edo herri mugimenduetan, egituraturiko gizarte zibilaren erreferentzia egin beharko luke. Hori da, hain zuzen, gizarte eragile edo agente sozial gehienek, erakunde zein enpresez kanpokoek, beren burua definitzeko erabiltzen duten leoa, nahiz eta beste zenbait kontzeptu, hala nola “elkarte ehundura edo sarea”, etab, ez dituzten arbuatzen.

Nolanahi ere, eraturiko taldeetatik haratago doaz gizarte mugimenduak, talde bakoitzaren egitura zehatzetik eta guztien batuketatik haratago. Taldeak, izan ere, gizarte sektore zabalagoen izozmendi-tontorra izango lirarteke; sektore horietan sareko lotura konplexuak gertatzen dira, ez agerikoak normalean edo ez hain esplizituak, baina bai masa-ageraldiak eragiten dituztenak zenbait egoera, eskakizun edo gatazka puntualetan. Gauzak horrela, mugimenduak jakitun dira inzipide garbiko sektore mobilizatuak beti gutxiengo bat direla eta, ohiz kanpoko koiuntura horietatik kanpo, tarteko gizarte gune hori sustatzea dela eronka beti ere.

Euskal Herrian antolaturiko gizarte zibilaren nortasun ezaugarriak, honako hauek lirarteke: jarra-kritikoa gizarte errealtatearen aurrean, halako aldaketa-helburu bat denon artean partekatua, “ez delegatzearen” aldeko apustua edo ekintza kolektibo zuzenaren lehentasuna, gizartean eskubide indibidual edo kolektiboen defentsa proiektatzeko era bezala; horretarako, ezinbestekoa da gizarte aldaketa bilatzea, hau da, bizikidetasun eta gizarte eredu alternatiboak, zeintzuek partaidetzan, elkartasunean eta justizian oinarrituak izan beharko duten. Osagarri komuna zera izango litzateke: behetik (gizarte ehunduratik, “gizarte zibiletik”) modu aktiboan lan egiten ari izatearen uste osoa, eta hori era irekian eta parte hartzailean, halako eran non gizarte ekintzara bildu nahi duen edozein pertsona kolektiboetan sartzea ahalbidetuko den. Erakundeen eta sektore pribatuaren mailan ez bezala, euskal gizarte mugimenduen nortasun ezaugarriak mugarritzeko alderdi bereizgarrietako bat hori baita: antolaketa molde lausoa, malgua eta porotsua, ez hierarkikoa.

Parametro horietan kokaturik, “hirugarren sektore” honek, erakundeen eta enpresen artean, garrantzi sozialeko politika partekatuko du, bokazio kolektibokoa, nor bere baitatik ateratzearena. Horrek erabat bereizten du, kideen beharrak edo nahiak betetzea helburu bakarra duten elkartetarik. Hala eta guztiz, agente sozialak edo gizarte eragileak dinamikoak dira eta ohikoa da bilakaera hedakorra, interes orokorrarekiko eta aldaketa sozial edota politikoarekiko konpromisorantz bideratua, edo inplosiboa, soilki taldekideen beren atsegin egitera zuzendua. Nolanahi den, erresistentzia hutsa gainditzeko premia nabarmentzen da agente sozial eraginkorragoak izateko, proposamenarako ahalmen handiagokoak.

Gizarte arazoak konpontzeko sektore pribatuak eta publikoak edo erakundeek –batzuetan arazo horien parte edo kausa direlarik– agertzen duten ezintasunak bultzatu ditu mugimenduak jarduera kolektibo autonomoa ezinbestekotzat hartzera. Neuri batean beste bi guneen (politiko eta ekonomikoaren) baldintzapean daudela ukatu gabe, gizarte taldeen autonomia, ekonomikoa zein diskurtsoarena, ezinbestekotzat hartzen da.

#### BIGARREN ATALA: GIZARTE ZIBILAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN – ZEIN IZAN DIRA ETA IZAN DAITEZKE GIZARTE ZIBILAREN EZAUGARRIAK EUSKAL HERRI OSOAN?

Hirurogei eta hirurogeita hamargarren urteak irakitasun eta dinamismo handiko aldiak izan ziren euskal gizarte zibilean. Nazioarteko testuinguru, garai hartako mugimendu kontrakulturalak eta askapen nazional edota sozialeko prozesuak (Kuba, Argelia, Nikaragua...) erreferentzia harturik, bai eta, ikuspegi nazional eta aurrerakoien aldetik, dikadura frankistaren aurkako borrokaren testuinguru hurbila ere, horra euskal herri-mugimenduaren hasierako indarra esplikatzen duten faktoreak, Hegoaldeari dagokionez gehienbat.

Elkarrekin “herri mugimendu” gisa jardutearen sentimendua da hasierako aldi ideologizatuago horren bereizgarria.

Laurogeiko urteetan, parte hartzean baino areago ordezkapen politikoan oinarrituriko demokrazia ereduaren instituzionalizazio gero eta handiagoa gertatu zen. Hegoaldearen kasuan, tokiko eta autonomia mailako erakundeak ezartzeak protagonismoa kentzen die gizarte talde eta elkarteei, eta politikaren profesional berrien eskuetan uzten du. Politikari horietaniko asko gizarte mugimenduetatik zetozen, hain juxtu ere. “Lanbide” bihurturiko politikaren aldetik gertaketen den pertsonen asimilazio horek herri mugimenduaren nahasmena eta nahigabea eragin zituen eta, ondoren, zaildu egin zuen erakundeekiko elkarriketa.

Hala berean, erakunde sortu berriek herri mugimenduaren diskurtsoa gero eta gehiago bereganatzea, partzialki bada ere, ezinbestekoa zen esparru instituzional berria legitimatzeko eta, aldi berean,

gizarte aktibismoaren ondorio den horrek hustu egin zuen edukiaz ordu artean aski sinplea izana zen jarduera inkorformista. Gizarte taldeek ez dute beren parte hartze moldeak egoera berrietara egokitzen jakin, eta pobretzen duen dilema batean harrapatu gertatu dira, bitarteko irtenbiderik eskaintzen ez duena, hau da, bidezko borroka zuzena ala gezurrezko parte hartzeko bideak.

Bestalde, erakundeek kanpoko erreibindikazio nazional baten jarraipenak gizarte sare bat bizirik irautea bideratu du, zeina, beste egoera batean, trantsizioaren ondoko Espainiako Estatuan egiaztatzen denez, desagertu egingo zen. Gatazka nazionalaren ondoriozko polarizazioak eta Euskal Herrian bizi den biolentzia politikoaren egoerak tentsioa eragiten dute gizarte zibilaren organizazioetan, eta ondorio anibalentea ekarri dute: gizarte energiak mobilizatu bai, baina nazionalak ez diren erreibindikazioak gehiegi estali edo diziplinatze joera agertzen da.

Euskal Herriaren eskubide nazionalen aldeko borroka euskal herri-mugimendua elikatzen du, eta bien konbinazio puntualak sektoreko gizarte erreibindikazioetan (Lemoiz, Leitxaran...) garbiri indartzen du gizarte mobilizazioa. Hala eta guztiz ere, sektore batzuen ustez, haren eragina negatiboa da, ego gutxienez desitxuratzailea, gizarte taldeen garapen autonomoa galarazi duen neurian. Ildo horretatik, erakundeek kanpoko Euskal Herria organismo edo egitura politiko zabalagoen itzalpean biltzeko saioak hausturak bideratu ditu zenbait mugimendutan, ekologisten edo internazionalisten artean gertatu bezala.

Dena den, demokrazia ordezkatzailaren desaktibazio-eraginak eta gizarte zibilaren taldeek erakundeen aldetik aintzatespenik ez izateak, gaien araberako zatikatze eta sektorializazio prozesu geroz eta handiagoa ekarri dute. Hala, laurogeiko urteetako bizipena ez da jadanik “herri mugimendu” batena, baizik eta profil mugatuen taldeena, hurbileko alorretan gauzaturikoena, atomizazioarena edo baita, zenbait kasutan, gizarte taldeen arteko gatazkarena ere.

Talde asko desagertzen dira, baina beste hainbeste edo gehiago sortzen dira gaur arte ukitu gabe zeuden hainbat gizarte eta erreibindikazio eremutan. Nazio mailako taldeak krisialdian daude, agian moldatzeko gaitasun urriagatik, baina gero eta gehiago dira toki mailako taldeak, arazo puntualak arduratzen direnak. Horren eraginez, herri mugimenduaren moldagarritasuna, freskotetasuna eta berrikuntza handiagoak dira, baina ondorio negatiborik ere badu: koordinaziorik eza eta elkarrekin lan egiteko zailtasuna, eta gizarte talde txikienen eremua gainditzeko duten erronkei aurre egiteko ezintasuna. Izan ere, kontzientzia garbia dago bai aniztasunaren egokitasunaz, bai elkarren ezagutzan sakontzeko premiaz eta ororen artean lan egin beharraz.

Nolanahi den, taldeen arteko harreman urri direlako sententzia, krisi egoeraren beraren ondo-

ria izan daiteke: gizarte ekintzaren maila garaia denean, taldeak ez bide dira lan komunaz arduratzen, eta krisi uneetan, elkarlana premiazkoagoa denean, ahuleziak berak eramaten ditu gizarte taldeak beren jarduera propioa nekez mantentzera, besterekin harremanetan jartzeko denborarik eta baliabiderik gabe.

Orain talde gehiago dago, baina jende gutxiago biltzen da talde bakoitzera. Egoera honetan, zehar-kakotasuna indartzea da etorkizunari begirako eronka, ideiak, sentiberatasunak edo gizarte errealitatera hurbiltzeko bideak partekatzen dituztelako kontzientzian oinarriturik.

Euskal Herriaren eskubide nazionalen buruzko erreibindikazioaren jarraipenaz aparte, eta kontuan harturik mugimenduen indar erlatiboa aldatu egiten dela denborarekin, azken urteotako euskal gizarte zibilean mugimendu ekologista, antimilitarista, feminista eta internazionalista izan dira sektorerik eraginkorrenak, *gazte txeen* inguruko gazte mugimenduekin batera. Nabarmentzekoak dira, halaber, euskararen aldeko mugimenduaren indarra, abangoardia baita koordinazioari eta talde lanari dagokionez, eta eliza katolikoaren hurbileko taldeek duten moldatzeko gaitasuna, zeintzuek lortu baitute beren gizarte eta laguntza jarduera egonkortu, bai eta gertuko arazoetara zabaldu ere –gazteen aisialdia, bazterketa, bakea. Azkenean, unean uneko mobilizazio boladez aparte, gatazka politikorekin zerikusia duten taldeek (errepresioaren aurka-koek, bakezaleek...) ekimen handia eta irmotasuna erakutsi dituzte, hala mobilizazioari nola antolaketa edo diskurtoari dagokionez.

Laburpen gisa, agian gaurko gizarte zibila ez da Euskal Herriko historian izan den mobilizatuena izango, baina bai aberatsena eta anitzena.

Bestalde, aldaketa sozioekonomikoak gero eta gehiago masa-kontsumora eta erosotasunean zein indibidualismoan oinarrituriko bizimoldeetara iristea bideratzen ari dira. Masa komunikabideek faboratu dituzte halako joerak. Konformismoa areagotu egin da, gauzak aldatzeak gero eta zailagoa dela ematen du. Alternatiba politika posible baten itxaropena mantendu bada ere, ez da balioetan sakondu. Ildo horretatik, elkartasuna, justizia... balioak gehiago kontserbatu dira herri txikietan, hiri handietan baino: Agian, krisia handiagoa da hirurogeita hamargarren urteetan herri mugimenduak sortu ziren tokietan.

Seguruenik, hirurogeita hamarreko urteetan abiatutako mobilizazio ziklo luze baten amaieran gaude, baina gizarte ekimen batzuek oraindik duten indar horrek, krisiaren belaunaldi-alderdia bistarazten digu. Hautematen denez, jendearen historia pertsonalari loturiko mobilizazio ziklo laburragoek –lau edo sei urtekoek– laurogeita hamargarren urteetan maila handi samarreko gizarte konpromisoarekin sartzea ahalbidetu dute.

Jakina, bilakaera hori ikusteko era desberdinak agertzen dira Euskal Herriko zein lurraldetatik ari garen.

Lehenik eta behin, zenbait herrialdetan abertzaletasuna gutxi errotua izanik, naziotasuna ez da horietan gune biltzailea gertatu, edo neurri apalagotan bederen, eta horrek, ondorioz, tentsio gutxiagoko talde harremanak ekarri ditu. Beste batzuek, ordea, nabarmendu egiten dute Arabako edo Nafarroako herri mugimendua elkartuago izatea, hain zuzen ere, egoera soziopolitiko zailago bati aurre egin behararen ondorio dela, egoera hori oldarkoragoa baita gizarte eskaerakiko, zeintzuk hango erakundeek, ia sistematikoki, euskal abertzaletasunarekin lotzen dituzten, egiazki izan litezkeen harremanak edozein direlarik ere.

Bigarrenik, ez da baztertzekoa zenbait hiriburuk –Gasteiz, Iruñea, baina baita Bilbo ere– izan duten eragina, herri mugimenduaren ezaugarriak eta funtzionamendu erak definitzerakoan. Hiria-aren dinamikaren menpekotasuna bereziki nabarmena gertatzen da Araban eta Nafarroan.

Arabako kasuari dagokionez, ezin alde batera utzi martxoaren 3ak belaunaldi oso batengan izan zuen eragina, une historiko hartan nagusi zen zentzu asanbleario hura galdu bada ere. Martxoaren 3koaren arrastoak, nolahi ere, bizirik dirau, eta ez bakarrik erreferentzia historiko gisa. Gasteizko gizarte osaera ere beste alderdi bereizgarri edo propioa da (beranduagoko emigrazioa, euskararen galera sektore zabaletan, etab.); hori dela eta, ulertzekoa da beste herrialdeetako gune eragileek kohesio handiagoa izatea, indartsuagoak izatea antolaketa egiturei dagokionez.

Nafarroako gizarte zibilaren ezaugarriak topikoak dira, baina ukaezinak: aberastasuna, aniztasuna, dinamismoa eta kontraste handiak. Oro har, berezia dela esan daitekeen gizarte batean, aktibismo sozialak, portzentaian txikia bada ere, munta handia du.

Gipuzkoan, aldiz, gizarte zibilaren sektore eragileenek beldur diote ghetto bilakatzeari eta konformismoari. Herri mugimenduaren aldeko gizarte koltxoi handiagoa izateak desmobilizazioa bidera egin dezake, edota, beren buruaz harro egonik, gizarte ekintza zabaltzeko prest ez diren gizarte talde batzuen konpartimentazioa. Bilbo, Gasteiz edo Iruñearen kasuan ez bezala, deigarria gertatzen da Donostia (hiriburua), kontsumo eta turismo produktioan espezializatu den neurrian, ez dela herri mugimenduaren erreferentzia-gune gertatu.

Hegoaldeko herrialde bakoitzak bere ezaugarriak baditu ere, gizarte zibil bakoitzaren egoera antzeko samarra da. Hala eta guztiz, agerikoa da Iparraldeko gizarte zibilaren bilakaera aski desberdina dela, eta alderdi askotatik. Lehen buruan, horren dinamika beste Estatu bateko, frantses Estatuako, gizarte, politika eta ekonomia prozesuei loturik dago, berriki trantsizio politikorik gertatu ez den Estatuari lotua, alegia. Bigarrenik, abertzaletasun politikorekin ahulezia erlatiboa eta gizarte eremu propioa bidera lezaketan erakunderik ez izateak deskonexioa eragin du abertzale edukia duten gizarte dinamikaren eta euskal erreibindikazio nazionalerik at daudenen artean. Euskal gizarte eta politika gune batekoak –“Iparraldeko-

ak”– izatearen kontzientzianik ezak zaildu egiten du elkarlana, are hartarako joera handiagoa duten sektoreetan ere, hala nola euskararenean. Ondorioz, Hegoaldekoa baino gizarte zibil heterogeneoagoa, zatikatuagoa eta desegituratuagoa da, antza; gainera, erakunde politiko, ekonomiko eta mediatiko indartsuagoei eta integratuagoei aurre egin behar diete, elitebelaunaldi berri bakoitzean erreproduzitzen den frantses eskola nazional handien corpus doktrinaren iraupena dela kausa.

Ildo hometatik, bereziak dira, halaber, Iparraldeko euskal gizarte zibilaren bilakaeraren mugari nagusiak. Euskal Departamenduaren aldeko errebindikazioa dela eta, guztiz eragile agertu den mugimendu abertzaleak egituraturiko gizarte zibilaren erimto bereziaz aparte, hona nabarmentzekoak diren zenbait uze nagusi:

- Hirurogeita hamargarren urteez geroztik, eta Iparraldeko gizarte zibilaren konstante gisa, garrantzi handia izan dute mugimendu kulturelek, bereziki mugimendu euskaltzaleak. Ez daiteke ahaztu Frantziako erakundeek euskal nortasunaren espresio kulturalista (folklorikoa) ez debekatzeaz gainera, kasu askotan, sustatu ere egin dutela, identitate-tentsioen irtenbide gisa, bestela eduki politikoagoa –beraz, arris kutsuagoa– hartu baitzezaketen.
- Gizarte arazoekin loturiko mobilizazioa ahula izan da, industria ehundura sendo eta langile mugimendu indartsunik ezean. Hala eta guztiz, frantses sozialismoa agintera iritsi ondoko frustrazioa eta, batez ere, Juppè ministroaren plan sozioekonomikoen aurka 1995ean abiatutako mobilizazioak direla eta, aktibatu egin dira gizarte bazterketak eta langabeziarekin zerikusia duten sektoreak, nahiz eta, orain artean bederen, “frantses” ikuspegitik jardun, eta ez inongo euskal ikuspuntu berezitik.
- Azkenik, aurtan bereziki azpimarratzekoak dira Miarritzeko goi-bilera alternatiboa zelaita eginiko manifestazioak. Alderdiek, elkarrek, sindikatuak eta Fundazioak, abertzale zein ez abertzaleak, hitzarturiko ekintza kolektiboak, sei hilabete eginiko elkarlanak eta egun horietako ekitaldiek –manifestazio, foro eta jaiek– eragin biltzaile garrantzitsua izan dute, halako kontzientzia kolektibo baten gisakoa, zeina emaitzak ekartzen hasia den elkarren ezagutzari eta gizarte taldeen elkarlanari dagokienez (hala nola ATTAC Pays Basque eta ELB sindikatuen artekoa, adibidez).

Azken ondorio hori, hasieran Iparraldeari dagokiona, euskal gizarte zibilaren erronka nagusietarako sarbide gisakoa izango da:

1. Etorkizunari begira, globalizazioari dagokion guztia fenomeno berri gisa planteatzen da, baina prozesu globalizatzaileari norberaren tokitik aurre egiteko premia azpimarraturik geratzen da. Toki

mailan eraginkorragoa da gizarte ekintza, atsegin pertsonal handiagoa ematen du eta, topagune bezala harturiko militantzia klasikoa behin gaindituz gero, atsegin pertsonal hori eskaini behar dute taldeek, masa-kontsumoaren gizarte bizirik iraungo badute. Etorkizunerako apustu batek tokikoa har dezake oinarri, eguneroko bizitza aldatuko dituen alderdiei dagokiena, baina ikuspegi partziala edo txokokeria gaindituz.

2. Erabateko belaunaldi aldaketa, eskema desberdinak ekarriko dituen, ezinbestekoa dela, gizarte edo herri mugimenduen ereduaren errotiko aldaketa gertatzeaz dagoela sumatzen da: antolaketak egitura arinak, autogestioaren, asanblearen... espiritua mantentzea bideratuko dutenak. Eredua hori eta taldeen jarduerak neurri batean profesionalizatu beharra koordinatzea zaila bada ere.

3. Gai zehatzen inguruko errebindikazio sozial erreformisten nagusitasuna aurrikusten da, eta horrek hesi bat dakarkie planteamendu orokorragei, orotariko arazoak kontuan hartzen dituztenei eta elkar loturik daudenei. Bizi maila hobetzea (osasuna, higienismoa, nekazaritza ekologikoa...) helburu dutenek funtzionatuko dute. Ildo beretsutik, halaber, (kontra) mugimendu berrien agerpena aurrikusten da aurrerapen progresistak neutralizatzeak, kontsumo ereduaren “mitoaren”, ustezko Ongizate Estatuaren babesean.

4. Hala eta guztiz, beste sektore batzuek gaurko gizartearen joera desarrollistei, gizatasunik gabekoei eta homogeneizatzaileei buru egingo dieten gizarte adierazpideen indarra seinatzen dute, arazo globalitate bere egiten duen ikuspegitik. Azpiegitura handien kritika, gutxieneko sozialen errebindikazioa, hala nola etxebizitza, edo proiektu ekonomiko-kultural handiei (Guggie, Kursaal, Baluarte...) kontrakultura edo norbere kultura oposatzeko premia. Horra jardunbide hirukoitz horren adibide soil batzuk.

5. Emigrazioaren fenomenoari emango zaion tratamendua da etorkizuneko beste gai garrantzitsuenetarikoa bat. Gizarte sarean erreakzio kontrajarriak eragiten ditu, ikuspegiaren arabera: identitatearekin ala aberastasunaren banaketarekin lotzen den. Etorkinek berek gatazka berriak piztuko dituzte, egun hemen dugunarekin erlazio gehiago agertuko dira, etorkizunean gurean eragina izan dezaketelako kanpoko elementuen munta ahaztu gabe (gerrak, aldaketak munduko mapan, etab.).

6. Halaber, subiranotasunaren inguruko gatazka politikoaren bilakaera eta horrek gizarte mobilizazioaren maila eta moduetan izango dituen ondorioak garrantzitsuak izango dira.

HIRUGARREN ATALA: ALDE IDEOLOGIKOAK –GIZARTE EREDUA, EKONOMIA, POLITIKA ETA KULTURA– EUSKAL HERRIKO GIZARTE ZIBILEAN

Balioen eta beren jarduerak gidatzen duten ideien arteko kointzidentziaz jakitun daude gizarte taldeak, baina aldi berean nabarmendu egiten dute

elkarrekin gogoeta egiteko eta geroko mobilizaziorako baliagarri gertatuko diren teoria-bilguneak definitzeko premia.

#### A. Eredu sozioekonomikoak

Beste herrietako gizarteekin alderaturik, gurea nahikoa asebetarik bizi da. Erosteke ahalmena gora doan heinean, kontzientziaren gainera, kolektibitatearekiko kezka galera gertatzen dela egiazta-tzen da. Gizarte bazterketa ez da ikusgai gehientzat, eta urruntasun horrek bide ematen dio asitentzialismoari. Bazterketa ez da egiturazko arazo gisa bizitzen, baizik eta patologia pertsonal baten moduan.

Horregatik, gaitz horren ondorioak gizartekotzeko funtzioa garrantzi handikoa dela irizten diote gizarte taldeek. Izan ere, ongizate erlatiboa gorabehera, aberastasunaren kontzentrazio prozesua begien bistakoa da, eta desberdintasunak gero eta handiagoak dira. Baztertze prozesuak, zenbait eremu eta taldetan kontzentratuak badaude ere, gutxieneko gizarte eskubideak urratzean ageri dira: etxebizitza izatea, baldintza duinetan egiteko lana, teknologia berrietarako sarbiderik eza eta analfabetismo funtzionala berria, etab. Gainera, lan merkatu eskasa gizarte zibilaren desaktibatzailea da, zeren eta, etengabeko xantxia ezariz, protesta eta erreibindikazio kolektiboa aldenarazten baititu.

Emakumeak, gazteak eta etorkinak dira egoera horiek gehien ukituriko taldeak. Jatontik eta generotik datoren desberdintasunaz gainera, bikoizkeria sozialak belaunaldi-osagai handia du, nahiz eta, aktibismo sozialera jo ordez, gazteriarren parte handi bat jarrera erreakzionarioa eta xenofobia hartzen ari den, eta hori "kontsumismo utopikoak" liluraturiko lupen propietarioen ezaugarria da.

Baztertze egoera horiek, itxuraz guztiz desberdinak badira ere, hari errole baten premia dute, gizarte aldaketaren aldeko ahalegin sozialak elkartzearen. Ez dirudi sindikatuek, erakunde korporatiboak bihurtu direnez, funtzio hori beteko dutenik, oro har, lanpostuaren defentsari eta kudeatze-ahalmenaren maila mantentzeari atxikirik jarraitzen dutelako, eta lan edo sozioekonomia arazoaren sozializazio-gune gisa funtzionatzen ez dutelako. Horregatik, sindikatuetatik at, kolektibo eta plataforma sektorialak sortzen dira, eta hala-koak talde jardueraren bidez, modu zuzenean, beren lan eskubideak defendatzen dituzte. Iparraldean nabarmentzen da fenomeno hori, kontuan harturik sindikatu "estatalen" urruntasuna eta, azken hamarkadetakoa gobernu jardueraren ondorioz, gizarte zibilak ezkerreko indar sozio-politiko dien mesfidantza.

Planteamendu ideologikoei dagokienez, gizarte taldeek balioen eta iritzien gaian sakontzearen beharra azpimarratzen dute, ondo jakinik ezen, diskurtso kritiko landurik gabe, zaila dela kontu hone-tan aurrerapausoak ematea, aldaketa sozioekonomiko guztiek aldaketa pertsonaia eta

bizimodu erosoan sakrifizioak egin beharra dakartzatelako. Asmoen adierazpenak jokabide zehatzetatik urrun egon ohi dira. Ildo horretatik, premiazkotzat hartzen da lanari ematen zaion balioaren aldaketa, bai eta, autozentsurarik gabe, horren banaketari buruzko benetako eztabaidari ekitea ere.

Informazioa zabaltzea eta baztertze sozialari buruzko eztabaida, desberdintasunen saiaketa eta horiek sortzen dituzten egiturazko kausei buruzko kontzientziazioa eginkizun garrantzitsuak dira euskal gizarte zibilaren baitan eraturiko taldeentzat.

Gizarte taldeen proposamen zehatzak gizarte zibilarentzat erabakitzeke ahalmen handiagoaren erreibindikazioan kontzentratzen dira, baita alor sozioekonomikoan ere. Are Iparraldeko kasuan ere, alor sozioekonomikoan erabakitzeke ahalmen handiagoaren aldeko erreibindikazioa (enpresa multinazionalen ixte edo leku aldaketan aurrean), zeharkakotasun-faktore bilakatzen ari da talde aber-tzaileen eta ez abertzaleen elkarlanari dagokionez.

Aberastasunaren banaketa eta parte hartze soziala baliabideen kudeaketan, proposamen zehatzetan, praktikoetan eta esperientzia alternatiboetan bistaratu behar dira, halako eran non ekonomia jendearengana hurbildu eta haren kontrolpean jarriko den hain gai urrun eta globalizatu hori: kontsumo alternatiboa, ekoizle eta kontsumitzaileen sareak, trukea, banka alternatiboa, gune autogestionatuak, etabar. Eta hori, gizarte jokoaren guneak irentsi eta desmobilizatu egiten dituen monstro hori –globalizazioari– aurre egiteak dakarren ezintasunari eman dakiokkeen erantzunik onena da.

Gizarte gutunaren aldeko ekimena nabarmendu beharreko esperientzia da. Gizarte zibilaren hainbat kolektibok Gasteizko eta Iruñeko Parlamentuetan butzaturik, ekimen horiek agerian jami du antolaturiko gizarte zibilaren eta gehiengoaren indar politikoen arteko dibortzioa. Ordezkaritza-erakundearen iragazkortasunik ezak areagotu egin du sistema politikorekiko eszeptizismo orokorra, bai eta frogatu ere gizarte zibilak –ordezkaritza iragazkirik gabe– aberastasunaren banaketa hobea nahi duela.

#### B. Kultura ereduak

Eraturiko euskal gizarte zibilaren taldeek euskal kulturara hurbiltzeko era, hein handi batean, bakoitzaren jardueraren garatzen den lurraldearen baitan dago. Gipuzkoan, euskal kultura euskal hizkuntzatik aparte samar ikusten da. Egoera normalizatuago batetik abiatuak, euskera, uste denez, euskal kulturaren eredu guztiz desberdinen bidea izan daiteke. Bizkaian edo Araban, ordea, euskarekin zerikusia duenarekin, euskaldun denarekin identifikatzen da euskal kultura. Eta Nafarroan eta, neurri handiago batean, Iparraldean, euskal kulturaren esparruan zuzenean lan egiten ez dutenek lurralde horietako aniztasuna nabarmentzen dute, halako eran non gaztelera, frantsesa edo gaskoia ere beren kulturatzat hartzen duten. Nola-

nahi ere, guztien ustez, munduaren gaineko begirada –kultura–, hein handi batean, sarbidearen –hizkuntzaren– baitan dago. Hortaz, gainerako ekarpenei uko egin gabe, euskal kultura eta euskara banaezinak dira.

Ildo horretatik, euskera ezin da aztertu bere testuingurutik kanpo. Horregatik, zenbait herrialdeetan hizkuntzaren biziraupena bermatua izatetik urrun badago ere, beste batzuetan halako distortsio bat egiaztatzen dugu: euskara dakiten pertsonen kopuru gero eta handiagoaren errealitatea ez dator bat eguneroko erabilerarekin. Araban eta Nafarroan, aintzatespen –partzialki bada ere– ofiziala gorabehera, euskara indar politiko jakin batzuen eta berorien mendeko erakundeen jazarpena jasaten ari da. Antolaturiko gizarte zibilarentzat egoera hori onartezina da, eta bere konpromisoa adierazten du, egoera minorizatuan egonik, adostasun zabalen beharra duen hizkuntza hori berreskuratzearekin.

Iparaldeko lurraldeetan, ezarpen ahula eta aintzatespen ofiziala ia hutsa izanik, bat datoz euskara babesteko premiari dagokionez, baina guztiak ez daude ados hizkuntza sustatzeko beharrari dagokionez. Alde batetik, norberarena erreibindikatzeko premia dago –dela euskaldun aldea dela gaskoi aldea–, gazteria uniformizatzen duen amerikar kulturaz jantziriko globalizazioaren aurrean; baina, aldi berean, anglosaxoiaren aurrean frantses kulturak dukeen etorkizunaz kezkatu ageri dira, edo susmo txarra hartzen diete erreibindikazio “sobera identitarioei”, antzinako Jugoslavia horren adibide-tzat aipatuz.

Kultura ezin daiteke ekonomiatik edo politikatik bereiz. Bilakaera sozial eta politikoaren baitan dago kultura propio baten garapena. Euskal kultura ez da kontzeptu estatikoa, historikoa baizik, garai bakoitzean nagusi diren eredu sozial, politiko eta ekonomikoei egokitzen zaiena. Alde horretatik, euskal kulturak baserri edo nekazari kultura baten ezaugarriak mantentzen ditu oraindik. Horren alde on eta txarrekin: elkartasuna, *auzolana*, autogestioa, xalotasuna, baina baita sexismoa, patriarkalismoa eta kristau kontserbadurismoa.

Nekazaritza kulturen alderdi positiboak ongi moldatu dira gizarte zibilak defendaturiko balioekin, eta ondorioz kultura alternatibo samarra eman dute, kultura jakitun gisa eraikitzen ari dena, nahiz eta globalizazio kulturaleko prozesuan murgildurik, non gero eta zailagoa den pentsamendu propioa gauzatzea.

Ildo horretatik, ezinbestekotzat hartzen da balio tradizional positiboak bultzatzea, kultura globalaren homogeneizazio eta nortasun galerari aurre egiteko.

Kulturaren alderditik ere, tokikoaren alde apustu egitea globalari ekarpen onena egitea da. Globalizazioarekin batera datorren uniformitatearen aurrean, gizarte zibilak komunitateen autogestioa erreibindikatzen du, hala esparru ekonomikoan nola kulturean. Horregatik, pentsamendu, kultura

berezi bat lantzea, euskaldun munduak biodibertsitate kulturalari egin ahal dion ekarpenik onena da, ahaztu gabe, aldi berean, euskal kultura bilakatu egingo dela aniztasunetik, mestizaia gero eta handiago batetik abiatuz. Euskal nortasun bereziak bizirik irauteko premiaren eta kultura desberdinetara zabaltzearen aldeko aukera progresistaren arteko tentsioa, antolaturiko gizarte zibilaren kezka funtsezkoenetako bat izango da etorkizunean. Kultura artekotasun horretan zer emateko eta zer hartzeko prest gaude? Aniztasuna beretu beharra dago baina kultura-komunitate desberdinak onartzeak ez luke ghettoen kopurua gehitzeko bidea izan behar; kulturen arteko elkargunea sustatu beharreko balioa da. Adibide bat: Sakanako Belaxe Irratian arabierazko irratsaio bat ematen dute.

### C. Eredu politikoak

Gizarte zibilak politikara egiten duen hurbilketa, bi mailakoa da: edozein gizartetan prozesu politikoak garatu beharko lukeen era, eta egungo Euskal Herriko egoera politikoaren balorazioa.

Lehen mailari dagokionez, herri mugimenduak gaurko demokrazia ordezkatzailaren kritika egiten du, “demokratiko” terminoaren eta –gizarte zibilaren eskaeren aurrean– sistema politikoak duen irekitasunaren artean den alderantzizko erlazioa saiaturaz. Erakundeen itxikeria bereziki larria da zenbait herrialdeetan.

Oro har, erakundeen aldetik ez da gizartearen integrazio eta parte hartzeko prozesuetan aurrera egiteko borondaterik. Gizarte taldeen bitartekotzari uko egiten diote, funtzio hori beren ospea erabat galdua duten alderdi politikoen gain uzteko. Parte hartzeko prozesuak –aholku batzordeak, etab.– sinbolikoak dira: edo ez dute funtzionatzen edo, fruiturik ematen hasiz gero, alde batera uzten dira. Erakundeen filosofiarekiko adostasunaren arabera, gizarte taldeak baztertu edo saritu egiten dira –dirulaguntzen bidez–, eta horrek moteldu egiten du taldeen ahalmen kritikoa –gizarte zibilaren ekarpen handiena–.

Horren aurrean, gizarte parte hartzaileagoa proposatzen dute mugimenduek, non subjektu sozialen jardura eta protagonismoa indartuko diren, tokiko esperientzietatik hasiz eta gizarte autogestioaren guneetarako tartea zabalduz. Hala, *res publica*ren kudeaketak ez du zertaz erakunde formalen eta horiek okupatzen dituzten alderdi politikoen monopolioa izan behar. Politikaren profesionalak eta alderdiek bahitua duten eremu politikoak berreskuratu beharra dago.

Horretarako beharrezkoa da, halaber, taldeek gutxieneko akordioak ezartzea, parte hartzeko mekanismo zehatzak (herri kontsultak, batzorde erabakitzaileak, etab.) exigitu eta abian jartzea bideratuko dutenak, edozein sektore edo gizarte eskaeratarako baliaigarri gerta daitezen. Gaur arte erabilitako mekanismoak –herriak sustatu lege ekimenak, batez ere Gizarte Gutuna, 35 orduak, eta

euskara Nafarroan—, modu positiboan baloratzen dira, baina gogoeta sakonagoa eskatzen dute: benetan gizarte ahaleginak sendotzeko balio dute edo soilki iritzi publikoan eragina izateko? Ez ote dira erakundeetarako txerto hutsak izango, ondoren era eraginkorragoz erreakzionatzeko gizarte eskarean aurrean?

Bigarren maila, egungo egoera politikoari kasu egiten diona, soilki tokikoak ez diren gizarte talde gehienentzat komuna den erreferentzia marko batek abiatzen da: Euskal Herria. Nahiz eta talde gutxi batzuek —salbu eta gatazka politikoari eta euskerari zuzenki loturikoak— marko global horren testuinguruari jartzen duten beren jarduerak. Are gehiago, egoera zehatzak ikusmolde oso desberdinetik antzematen dira herrialde edo sektorearen arabera, eta errealitate horiek eskuarki ez dira kontuan hartzen zenbait gai “nazionalizat” jotzen direnean. Iparraldearen kasua da hori, non Euskal Departamendua, eta haren bertute praktikoen ingurukoa, erreibindikazio politikorik zabalduena eta komunena den, eta subiranotasuna edo euskal lurraldetasun nazionala askoz lausoago edo partzialak diren bitartean.

Onartu egiten da subiranotasunaren inguruko gatazka politikoak garrantzi handia ematen diola politikari, publikoak den orori, eta hori ona da berez, baina, aldi berean, indar asko kontsumitzen du, eztabaidak monopolizatzen ditu eta garrantzi sozial handiko beste zenbait gai alde batera gertzen dira. Gatazkaren ondorio bortitzak eta ondoriozko gizatasunik eza, gaizki bizi dira gizarte taldeetan.

Gatazka politikoak eta indarkeriazko ondorioek polarizatu dute gizarte zibila, eta horren ondorioz sektore erreakzionario batzuk berpiztu dira, are gazteen artean ere. Gainera, polarizazioak “etiketa” jartzen dio jendeari eta zaildu egiten du gizarte zibilaren zeharkako jarduerak. Hala eta guztiz, ezin desmobilizazioaren edo adoregabeziaren kausa bakartzat hartu. Oraingo prozesu politikoan, kontrasesanzko mezuak zabaltzen dira, eta aldi berean “alderdien orduaz” hitz egiten da.

Baztertze hori bereziki larria da, ezen gizarte mugimenduek gaitasun handia frogatua dute joera politiko desberdineko pertsonak elkarlanean jartzekoan, sakoneko desadostasunak ezinbestean lubaki gaindiezinak bilakarazi gabe. Eguneroko praktikan, gizarte taldeek sinplifikazioetatik edo tabu politikoetatik ihes egiten dute, eta beti eztabaidak arrazionalizatzen saiatzen dira. Hori da gizarte zibilak egin dezakeen ekarpena: jarrera kritikoa, eztabaida eta adostasunerako gaitasuna.

Nolanahi ere, adostasun zabala dago gatazka konpontzeko bide teorikoari dagokionez: euskal herritarrek gauzatu beharreko autodeterminazio eskubidea, nahiz eta ez den ahaleginik egiten edukia eguneratzeko edo arazoak beste gai batzuen —hala nola hermitartasunaren— testuinguruan jartzeko. Iparraldearen kasuan, gizarte taldeek Departamendu propioa izateari garrantzia bera ematen ez

badiote ere, adostasun zabala dago herritarrei kontsultatzeko premia, bai hori eta bai beste edozein arazo, Parisko funtzionarien eskuetan utzi gabe.

LAUGARREN ATALA: GIZARTE EKINTZA —MILITANTZIA, ANTOLAKUNTZA BALIABIDEAK ETA HARREMANAK; GIZARTE EKINTZARAKO TRESNAK —KOMUNIKAZIOA, MOBILIZAZIOA, JARDUERA MOTAK

#### A. Militantzia euskal gizarte zibilean

Berlingo harresia erori ondoren, gizarte zibilaren aldetik gizarte aldatzeko eginiko proposamenak krisian dauden neurrian berean, “garai aldaketa” baten kontzientzia dago, bai eta militantzia kontzeptu tradizionalak berrikusteko premiaren kontzientzia ere.

Izan ere, gizarte baztertzea edo nazioarteko elkartasuna bezalako sektoreen esperientzian oinarriturik, kudeaketa eredu berriak sortu dira, eta horietan gizarte taldeen profesionalizazioa nagusitu da. Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE), zerbitzuak eskaini eta horregatik baliabideak kudeatu behar dituzten gizarte zibileko erakunde horiek, erreferentzia berriak dira. Horrek guztiak ondorio zuzenak ditu, besteak beste: profesional kontratatuen eta boluntarioen konbinazio batek ordezkatzeko dituzten militantzarako, eta gizarte errealitatearen kritika maila jaitziz edo errotik alternatiboak diren ereduak proposatzen ez dituzten aldaketaren ideia berriak azaltzen dira. Bilakaera honek, alde batetik, gizarte sektore eragileen motibazioa galarazi bide du, horiek ez baitira gizarte zibilaren instituzionalizazioaz fidatzen, baina, bestetik, hobeki adosten da ez hain ideologizatua, pragmatikoagoa den gizarte konpromiso batekin.

Ildo horretatik, militante kopurua murriztu dela egiazta daiteke —askotan multimilitantzia fenomenoekin batera gertatzen dena—, gizarte konpromisoaren profilararen aldaketarekin batera. Jarrera kritikoa mantentzen da, baina ikuskera ideologiko desberdinak, ez hain monolitikoak, dituzten pertsonak jarduerak gune sozial berberetan dihardute, konpromiso mailak ere desberdinak direla. Gizarte esperientziara hurbiltzeko erak ere aldatu dira: “ordu eta leku guztietan, betirako militantzia” haren ordez jarduneko militantzia laburragoa (3/4 urte) ageri da, eta anitz dira gizarte ekintzarekiko atxikimendu-erak, aktibismo hutsetik gaur arte ezezaguna zen profesionalizatoraino, tartean hainbat molde daudela, hala nola boluntarioa, laguntzailea, bazkidea, etabar. Jendeak bere hurbileko interesen arabera planteatzen du bere gizarte jarduerak eta bere militantzia denbora pragmatikoki banatzen du, beste aisia modu bat bezala, jende interesgarria ezagutzeko edo, besterik gabe, ondo pasatzeko bidea bezala.

Lehenko militantzia idealizatu egin da eta, agian, gehiegi dramatizatu da belaunaldi txandaketa, edo hobe esan, ordezkoko berririk ez izatea, zeren eta sektore edo herrialderen batean aktibismoaren zahartze prozesuak agerikoa dela badirudi ere,

beste batzuetan arazoa guztiz kontrakoa baita, hain juxtu ere: gehiegizko gaztetasuna eta prestakuntzarik eza.

Gazteen asaldatzea era anitzago batez bideratzen da: parrokietatik sektore berrietara –bizimoldeak–, hala nola “agropunk” (Araba) izenekoa edo hiriko tribuak... Iparraldearen kasuan, bereziki nabarmentzekoa da anizte hori, ezen, aurreko hamarkadetan, gizarte jarduerarekiko atxikimendua –ia soilki– kulturaren alorrean agertzen zen.

Ezin ahaztu, bestalde, eraikuntza nazionalarekin edo errepresioaren aurkako mugimenduarekin zerikusia duen gizarte jarduera guztiak konstante bati aurre egin behar izan diola hirurogeita hamargaren urteetatik: errepresioa, eta horren eragin bikoitza, desmobilizatzailea eta gizarte erantzunaren eragilea.

## B. Antolakuntza baliabideak eta taldeen arteko harremanak

Baliabide materialei dagokienez, gabeziak kezagarriak dira beti ere. Diru baliabideak falta dira. Dirua betikoan gastatzen da: lokalak eta liberatuak, nahiz eta gero eta premia handiagoa ikusten den beste zenbait alorretan: azpiegitura informatikoa, komunikazio tresnak edo zabalkundea eta prestakuntza.

Pertsona liberatuen gastua, hau da, gizarte taldearekiko ardura ordaintzen zaizkienena, ezinbestekotzat hartzen jarraitzen da, nahiz eta kasu askotan postu horretan txandakatzea gutxi-asko planifikatua izateak eta boluntarioak gero eta gehiago azaltzeak piramide egitura tipikoa eraldatu duten eta horizontalago eta parte hartzaileagoa –baina, agian, ez hain eraginkorra– bilakatu duten. Nolanahi ere, errezeloz ikusten dira beti ere barne egitura formalegi eta profesionalizatuegiak.

Finantzabideei buruzko eztabaida autofinanziazio zailaren eta dirulaguntzaren artean mugitzen da beti, bigarren molde hori, aldi berean, eskas, arriskutsu edo susmagarritzat hartzen dela. Laguntza publikoak, ematerakoan erabiltzen diren modu eta irizpideak kontuan harturik, gizarte zibilaren gaineko kontrol politikoa ezartzeko tresna izan ohi dira maiz. Dena den, tokiko talde batzuk erakusten ari diren moduan, funts publikoetara iristea ez genuke berez txartzat hartu behariko. Kontua da dirulaguntza horiek finantzabide propioekin osatzea, hala tradizionalak (txosnak, kuotak...) nola berriak (proiektuen kudeaketa, bazkide laguntzaileak, etab.), halako eran non mugimenduen autonomia babesturik geratuko litzatekeen.

Taldeen arteko harremanak ez dira inoiz errazak izan. Ezta familia ideologiko berberen barnean ere. Arrakastarik gabeko saio pila bat egin dira taldeen artean erlazio egonkorak ezarri nahiz. Zenbaitetan, subiranotasunaren inguruko gatazka politikoa eta talde bakoitzak horretaz egi-

ten duen balorazio desberdina dira elkarlana zaildu dutenak. Nahiz eta, Miarrizko kontra-gailurrean gertatu bezala, gizarte taldeen arteko mesfidantza baino areago, eragile politikoei, gizarte zibila polarizatzei eta talde jakin batzuk “bakartzeko” asmoz, kanpotik eginiko presioa den desakordioaren kausa nagusia. Beste batzuetan, protagonismo gosea edo talde bakoitzak beharrezkoa duen autonomiaren gehiegizko balorazioa izan dira horren eragileak. Horregatik, elkarren arteko ekimenak, gehienbat, espontaneoak izan dira.

Hala eta guztiz, elkar ezagutzeko eta elkarrekin lanean jarduteko asmoz, harreman sareak ezartzeko gero eta sentituagoa den premia dugu. Ideiak, errealitatea ikusteko moldeak eta haren gainean jarduteko erak denonak direlako sentimendua zabaltzen ari da gizarte eragileen artean.

Mugimenduen sarea harreman pertsonalen gainean finkatu beharra dago, elkarrekiko ekimenean, denon esperientzien gainean, baina ez gizarte talde bakoitza irentsiko duten makroegituratan.

Nazioz gairikoa sareekiko harremanak beharrezkoak dira, baina gehienbat jarduera eta erlazio barruti nagusia Euskal Herrikoa dela azpimarratzen da. Hala eta guztiz, Iparraldearen kasuan, bereziki nabarmentzen da nazioz gairikoa erroka bati egindako tokiko/ nazioz gairikoa erantzuna –Miarrizko gailur alternatiboa–, eta agian gehiago pentsatzen da European edo mundu mailako espazioan, nahiz eta hori oraindik beren baitan bildurik dauden Hegoaldeko gizarte taldeentzat urrun edo arrotz izan.

Talde desberdinen arteko harremanak indartzeko erarik onena ekimen komun zehatzak antolatzea da, tokiko guneetan bereziki. Irrati libreak eta, euskararen barrutian, kontseilua dira elkarren bi adibide, guztiz mota desberdinekoak eta are kontrako adibide gisa funtziona dezaketenak.

## C. Gizarte jarduerarako tresnak: komunikazioa, mobilizazioa eta ekintza moldeak

Antolaturiko gizarte taldeek gainerako gizarte zibilarekin duten komunikazioa funtsezko elementua gertatzen da, talde horiek neurri handiagoan edo txikiagoan bultzatzen dituzten aldaketa proposamenak zabaltzeko. Betidanik, harreman pertsonala izan da komunikazio erarik zuzenena eta eraginkorrena. Gaur egun, “ahoz ahokoaren” garrantzia berretsirik ere, jendearengana iristeko modua aldatu dela ulertzen da. Komunikabideek murgildu egiten gaituzte informazioan, eta jendearen arreta bereganatzeko lehiatu beharrak aldatu egin du taldeen “komunikazio politika”: Saturazioak diskurtsoa mehetzea dakar. Kartel, pankarta eta panfletoen mezuak murrizten dira jendea ez “nekatzeko”, edukiz hornituriko hitzaldiak eredu agortuak dira gero eta “ikusizkoagoa” den mundu batean. Hori kaleko presentzia txikiagorekin batera gerta-

tzen da, eta komunikabide handietan ez da presentzia handiagorik nabaritzen.

Hain zuzen ere, gizarte zibilaren gizarte talde antolatuek ez dute tarte handirik bereganatzen masa komunikabideetan. Informazioaren monopolioek gizarte eredu bertikala nahi dute, non, alde batetik, aditua –dela politikoa, dela zientzilaria– bultzatzen den, eta, bestetik, herritar arrunta kontsumitzaile edo ikusle eginkizunean agertzen den: ez dago lekurik gizarte mugimenduentzat, salbu eta ikuskari atsegin edo subertsio onartezin gisa. Eginkizun bikoitz horretan harrapatu, edo pailazo edo gaizkile, mugimenduak anekdotan, originaltasun eta ikuskariaren bila geldiezin, edo beldurrezko pasibotasunean eror daitezke. Masa komunikabideek errealitatea “definitzen dute” talde interesgarrienak “aukeratzean”, dela gatazka saihestezin batekin loturik agertzen direlako, dela “atseginak”, “ikusgarriak”, edo sistemarentzako funtzionalak direlako. Horren ondorioz, begien bistako errealitateak ezkutatzeaz gainera, konparaziozko irainak sortarazten dituzte, eta horiek zailago egin dezakete elkarlanean aritzea, Iparraldean gertatzen den bezala, euskaldunaren eta gaskoi edo okzitaniarraren arteko ustezko lehia dela kausa.

Oro har, egoera horrek gizarte taldeak kezkatzen baditu ere, gehienek badakite halako baldintzetan mugitzen. Guztiarekin ere, komunikabide handiekiko independentziara jo beharko litzateke: ez kokatu komunikabideetan gizarte lanaren erreferentzia, horien garrantzia erlatibizatu, elementu guztiz desitxuratzaila delako eta gizarte errebindikazioa bere edukiez hustu egiten duelako.

Komunikabide propioak, herri komunikabideak, gizarte zibiletik eta gizarte zibilarentzat diseinatuak, komunikazio alorreko prestakuntza, ezinbestekoak dira zabaltzen ari den herritar pasiboaren eredu gaitu ahal izateko. Tokiko komunikabideak bide bat izan daitezke, baina ez da ahaztu behar monopolio handiak komunikazio gune horietako askotaraino iritsi direla. Etorbizunari begira, hori da aurrean ditugun eronketariko bat.

Hala berean, teknologia berriek (Internet, posta elektronikoa) komunikazio ahalbide handiak ireki dituzte gizarte zibilaren baitan. Goizegi da horien eragina neurtzeko, baina taldeen eta herrialdeen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetu badira, eta webguneen bidezko proiektio publikoa mesedegarri gertatu bazaie talde sendoenei, halako nahasmena dago bide berri horiek eskaintzen dituzten posibilitateei dagokienez. Kezka ere bada,

jendearen sozializazioan funtsezkoa den elementu bat galtzeko arriskua baita: harreman pertsonala, auzerik auzerik eztabaidak edo nor bere dokumentuak ontzea.

Gizarte mobilizazioari dagokionez, gerta daitezke, baita, garai-aldaketa baten aurrean egotea. Kaleko adierazpide publikoa galtzen ari da. Gizarteak, oro har, manifestazioak edo karteladak mesfidantzaz edo beldurrez ikusteko joera agertzen du. Balioen aldaketaren, autoestimaren galeraren edo ongi samar bizi izatearen ondorioa izan daitezke, baina ez da talde antolatuen erantzukizuna ahaztu behar: “egutegiko” manifestazioek –prozesioek–, kontsignapean eta berez helburu gisa ulerturik, jendea aspertzen dute azkenean. Mobilizazioek gertakari puntual gisa, alde aurreko lanik gabe, ez dute balio. Mobilizazioak, alde aurretik, aldatu nahi den errealitateari buruzko informazio eta irakurketa lana izan behar du oinarri, bai eta zerbait egin behar eta egin ahal delako kontzientzia zabaldu beharra dago. Azkenean etorriko litzateke gizarte mobilizazioa, zeinak beti ere formula berriak bilatu beharko litzuzkeen: manifestazioak bizitasunik gabeak izan ohi dira, aspergarriak, aurrikusteko modukoak. Eta ezin ahaztu kanpoko eraginaz gainera, mobilizazioak erraztu egiten duela gizarte taldeen erreproduzioa, militantzia berri baten etorrera.

Hala, gizarte jardueraren moldeak aurreko arazo horrekin erlazioz, ageri dira. Ildo horretatik, garrantzizkotzat hartzen da gizarte interbentzioaren molden aniztasuna. Ez da zertaz uko egin behar zeinahi formulari. Bide instituzionalak (lobbying/ negoziazioa) edo judizialak egokiak gerta daitezke, non eta gizarte jardueran ez den modu horietara mugatzen, eta kasu bakoitzean zer lortu nahi den oso garbi izaten bada. Bide instituzionalen erabilerari dagokionez, autonomia mantenduko bada, militantziaren prestakuntza ezinbestekoa gertatzen da. Itoizko adibide anitza –kontraesankorra?– aipatzen da: bide judiziala, ekintza zuzena, mobilizazio tradizionala, mozio instituzionalak eta nazioarteko laguntza. Hala ere, orokorrean gizarte eskarien judizializazioa arriskutzat hartzen da, nahiz eta batzuetan egokia edo ezinbestekoa den.

Amaitzeko, desobedientzia zibilaren formulen bideragarritasuna nabarmentzen da, baldin eta berbera xede bezala edo ekintza puntual moduan planteatu ez, eta alde aurreko lan baten emaitza gisa hartzen bada, zeinak jendearen kontzientzia hartzea eta konpromiso maila desberdinak eskaintzea bideratzen dituen.